



IKERKETA PROIEKTUEN LAGUNTZEN, BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZEN, EGONALDIETARAKO LAGUNTZEN ETA BILTZARRETARAKO LAGUNTZEN FINANTZA KUDEAKETA ETA LAGUNTZAK KOBRATZEA

Konpromisoa

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak (EFEO) bere gain hartu du deitutako ikerketa-proiektuekin lotutako laguntzen emakida zuhurtziaz kudeatzeko konpromisoa eta ardura, indarreko lau modalitateetako edozeinetan.

Elkargoko funtsak eta aurrekontu-partidak kudeatzeko gure gardentasun- eta efizientzia-politikari jarraikiz, eta Elkargoaren zerga-aholkularitzak, kanpoko auditoreek eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuna eta Finantzak Sailak eginiko gomendioak eta oharrak behar bezala betetzeko agindua errespetatzeko, dokumentu honetan, laguntza horien kontularitza-kudeaketa arautu behar duten zerga-irizpideak jaso dira, bai eta, zerga-ondoreei dagokienez, azkenean saria jasoko duten pertsonen eta/edo enpresek-erakundeek horiek kobratzeak izango dituen ondorioak ere.

Hemen jasotako irizpideek, indarreko araudia biltzearen eta arloko adituen aholkuaren eta gomendioen ondorio direnak, helburu dute erantzun ematea aurreko edizioetan jasotako esperientziari eta kasuistikari, eta irizpideak ikasteko prozesu ireki baten parte dira; hortaz, etorkizunean alda daitezke.

Esleitutako zenbatekoak

Ikerketarako laguntzen modalitate bakoitzari lotutako zenbatekoak EFEOn dagozkien aurrekontu orokorretatik datoz zuzenean, eta ezingo da gaingitu indarrean dagoen urterako esleitutako partida ekonomikoa.

Laguntzak kudeatu eta kobratzeko araudia. Aplikatu behar diren atxikipenak

Laguntzen eskaerak egiteko zenbait aukera daudenez, zerga-tratamendu espezifikoa emango zaie. Horrela, bada,

Sarituak **pertsona fisikoak badira**, sariak kobratzeko eta dagozkien fakturak egin ahal izateko aplikatu beharreko atxikipenak errespetatu beharko dituzte (**PFEZ**); gaur egun atxikipen hori % 19koa da dirutan emandako sarietarako.

Laguntza horiek elkargokideei eskaintzen zaizkienez, ez da BEZa ordaindu behar *Balio erantsiaren gaineko zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen*¹ arabera.

Eragiketetan ez da TicketBAI faktura egin beharko, eta ez dira Elkargoaren EEEL-240 ereduan jaso beharko.

Laguntza enpresa edo erakunde bati ematen bazaio, elkargokide bat aurkeztutako proiektuaren arduradun izendatu ostean (ikertzaile nagusia), erakundeak dagokion faktura egin beharko du TicketBAI sistemaren bidez, eta faktura Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuan (EEEL) jaso beharko da, indarreko araudiarekin bat.

Kasu horretan, ez da atxikipenik edo zergarik ezarriko; izan ere, saritutako ikerketa-proiektua garatzeari lotutako gastuak ordaintzeko laguntza ekonomikotzat hartzen da.



IKERKETA PROIEKTUEN LAGUNTZEN, BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZEN, EGONALDIETARAKO LAGUNTZEN ETA BILTZARRETARAKO LAGUNTZEN FINANTZA KUDEAKETA ETA LAGUNTZAK KOBRATZEA

Laguntza ordaintzeko ordainagiriaren betekizunak

- **Pertsona fisikoek saria kobratu dezaten:**

Eskudirutan bakarrik ordainduko da, eta ezingo da gauzazko ordainketarik egin. Laguntzen zenbateko banku-transferentzia bidez ordainduko da, dagokion PFEZ atxikipena aplikatu ostean (**% 19**), eta EFEOk berak emango duen ad hoc ordainagiri-eredu bakar baten bidez kudeatuko da.

Lortutako laguntza ordaindu ahal izateko, saritutako pertsonak edo taldeak, dagozkion fakturen bidez edo zerga-ondorioetarako baliokideak diren agirien bidez (erosketa-tiketak, garraio-txartelak...)², saritutako proiektuarekin lotutako zerbitzu, material, mantentze-logistika edo gastu guztiak egiaztatu beharko ditu, betiere laguntza hauen oinarri orokorretan diruz laguntzeko modukotzat identifikatuta badaude.

Aurreikusitako gastu guztiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute eskaeraren Memoria Ekonomikoaren atalean, hau da, aurrekontuetan adierazitako kontzeptuekin bat etorri beharko dute.

Bestalde, finantzatu daitezkeen kostuak indarreko deialdiaren hurrengo urteko abenduaren 31 baino lehen egin beharko dira.

- **Aurkeztutako proiektuaren arduradun gisa (ikerlari nagusia) fisioterapeuta bat izendatu duten erakundeek eta/edo enpresek saria kobratzeko:**

Zerga-tratamendu berezia aintzat hartuta, kasu horretan, ez da atxikipenik edo zergarik ezarriko, saritutako ikerketa-proiektua garatzeko lotutako gastuak ordaintzeko laguntza ekonomikotzat hartzen baita.

Enpresak justifikatu egin beharko du saritutako ikerketa-proiektua egikaritzeko ordainketa ekonomikoa, ordainagiriaren edo dokumentu baliokideen bidez. Horretarako, proiektuaren memoria ekonomikoa eta/edo ordainduta dagoen faktura aurkeztu beharko du, eta faktura horrek bat etorri beharko du proiektua garatzeari lotutako diruz lagun daitezkeen gastuekin, adibidez:

- Kanpo-zerbitzuak kontratatatzeko kostuak (bekadunak, estatistika-analisia, pazienteen ebaluazioa, etab.).
- Ikerketa egiteko inbentarioan jaso daitekeen material suntsikorra.
- Ekipoak erabili eta mantentzearekin lotutako gastuak.
- Egin beharreko ikerketarekin lotutako bidaien eta egonaldien gastuak.



Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
Ibarrekolanda kalea 15-- 48014 - Bilbo
Tel. 944 020 155
IFK: G-95206868

Saritutako pertsonaren identifikazioa (izena eta bi abizen):

.....

NAN:.....

HELBIDEA:.....

KONTZEPTUA: EFEOren Ikerketarako Laguntzetarako Sariak (*)
Eskudirua ematearen kontzeptua:

- IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK
- BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZAK
- EGONALDIETARAKO LAGUNTZAK
- BATZARRETARAKO LAGUNTZAK

☐
☐
☐
☐

Zenbateko gordina:€

% 19ko atxikipena:€

GUZTIRA:€

ORDAINKETA JASOKO DEN KONTU ZK:.....

DATA:.....

JASO DUT (sarituaren sinadura jaso behar da):

.....

(*) EFEOren estatutueta (<https://cofpv.org/eu/estatutos.asp>) 10.f artikuluan ("Elkargoaren eginkizunak") jasotakoari jarraikiz, fisioterapeuten artean ikerketa erraztu eta sustatzeko laguntzak abian jartzeko

Pertsona fisikoaren jasotze-agiriaren eredu bakarra



Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
Ibarrekolanda kalea 15-- 48014 - Bilbo
Tel. 944 020 155
IFK: G-95206868

Saritutako enpresa edo erakundearen identifikazioa:

IFZ:.....

HELBIDEA:.....

KONTZEPTUA: EFEOren Ikerketarako Laguntzetarako Sariak (*)
Eskudirua ematearen kontzeptua:

- IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK
- BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZAK
- EGONALDIETARAKO LAGUNTZAK
- BATZARRETARAKO LAGUNTZAK

Laguntzaren zenbatekoa:.....€

ORDAINKETA JASOKO DEN KONTU ZK:.....

DATA:.....

JASO DUT (saritutako enpresa/erakundeko arduradunaren zigilua eta sinadura jaso behar da):

.....

(*) EFEOren estatutuetako (<https://cofpv.org/eu/estatutos.asp>) 10.f artikuluan ("Elkargoaren eginkizunak") jasotakoari jarraikiz, fisioterapeuten artean ikerketa erraztu eta sustatzeko laguntzak abian jartzeko

Erakunde eta/edo enpresei laguntza ordaintzeko agiri formalaren adibidea



1_ Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Título II. Exenciones. CAPÍTULO I. Entregas de bienes y prestaciones de servicios.

Artículo 20. Exenciones en operaciones interiores.

Uno. Estarán exentas de este impuesto las siguientes operaciones:

(...)

12ª Las prestaciones de servicios y las entregas de bienes accesorias a las mismas efectuadas directamente a sus miembros por organismos o entidades legalmente reconocidos que no tengan finalidad lucrativa, cuyos objetivos sean de naturaleza política, sindical, religiosa, patriótica, filantrópica o cívica, realizadas para la consecución de sus finalidades específicas, siempre que no perciban de los beneficiarios de tales operaciones contraprestación alguna distinta de las cotizaciones fijadas en sus estatutos.

Se entenderán incluidos en el párrafo anterior los Colegios profesionales, las Cámaras Oficiales, las Organizaciones patronales y las Federaciones que agrupen a los organismos o entidades a que se refiere este número.

La aplicación de esta exención quedará condicionada a que no sea susceptible de producir distorsiones de competencia.

2_ Documentos equivalentes a facturas son aquellos que, aunque no son técnicamente facturas, cumplen con los requisitos legales para ser considerados como tal y pueden ser utilizados para respaldar transacciones comerciales y para fines fiscales.